

PELLO ZUBIRIA

Argentinan ez sojak xomorrerik, ezta laborariek osasunik

Hamar urte daramatzate kexuka Amerikako jende askok, labore transgenikoei hegazkinetatik botatzen zaizkien herbizida, pestizida eta bestelako pozoiek bizimodua hondatzen dielako. Baserri inguruetan bizi dira asko, baina ugari dira hirietako periferietakoak ere. Gaixotasun beldurgarriak nola ugaritu diren kontatzen dute.

GLISOFATO, CIPERMETRINA, 2.4D, Endosulfan, Atrazina, Clorpirifos... Horiek dira Argentinan eta zabalean hartuta mundu osoan labore transgeniko berriekin zabaltzen diren botiken izenak. Bertako baso gehienak eraituta, aziendak —nor gogoratzen da antzinako milioika behi argentinarrez?— urrituta eta alorretan aspalditik eraitzen ziren landare anitzak murriturik, ugaritu diren bakarrak pozoia dira. Eta horiekin batera, haien lurrinak arnasten dituzten herritarren eritasunak.

Joan den apiril bukaera ehundaka mediku eta osasungintzako langile bildu ziren Rosario hiriko unibertsitatean epidemia berriaz hitz egiteko, *Iº Congreso Latinoamericano de Salud Socio Ambiental* deitu biltzarrean. Aurretik, Argentinakoek burutua zuten *IIº Encuentro Nacional de Médicos de Pueblos Fumigados* batzarra.

Gaiaren larria honela laburbildu zuten Rosarion bildutako profesionalek: “Argentinan etengabe fumigatzen dituzten herrietako biztanleen osasunak eraso oso larria nozitzen du. Egoera okertzen ari da gainera egunetik egunera eta leku horietan bestetan baino askoz sarriagotan detektatzen dira gaixotasun larriak, hala nola minbiziak, abortuak, ernaketako arazoak, jaiotzetiko malformazioak dakartzkiten haurrak, eta abar”.

Bai Rosarioko bilkuran eta bai iazko abuztuan Cordoba hiriko unibertsitatean egin zuten lehenbizikotan, dokumentazio latza erakutsi zuten, unibertsitateko irakasleek eta lekuan bertan osasungintzan ari diren medikuek ekarrita.

Argentinako eremu zabaletan dena egiten denez handizka, sojaren hedatzea ere neurri gabekoa izan da. Errepublikak hartako soroen erdiak gaur lekale horrek hartu ditu. 1990an lau milioi hektareatan erein bazen, 2010ean 18 milioi hektareak gainditu zituen, ia denak labore transgenikoak. Arroz, arto eta bestelako transgenikoak batuta, denetara 22 milioi hektarea baino gehiago dira.

Jakina soja transgenikoa pozoiarekin ezkondu dagoela sorreratik, funtsean Monsanto korporazioak Rondup markarekin saltzen duen Glisofatoarekin. Honek belarrak akabatzen ditu; hura genetikoki eraldatuta dago pozoia erdian bizitzeko. Belarrak ihartzeko botikaz gain, xomorroak hiltzeko Endosulfan eta gaineratikoak ere zabaltzen behar dira alorretan. 1990ean Argentinako lur sailetan 35 milioi litro herbizida zabaltu zen; 2010ean 300 milioi baino gehiago.

Monsantoko ugazaben zorionerako, beraiek patentatutako soja hazia- ren eskaria handitzeaz gain, Glisofatoari aurre egiten ikasi zuten belar eta

Argazki txikia —Indymediari hartua— gogorra da oso, baina ez gezurrezkoa: ama gaztearen besoetan ageri den haurra malformazio larriekin sortu da eta horiekin bizi beharko du. Interneteko bilatzaileetan pittin bat miatu besterik ez dago horrelakoak eta gogorrakoak aurkitzeko, soja, arto eta arroz soroz bete dituzten Argentinako eremu handietan, lehen zelai eta baso izandakoetan, bizi diren herrietan eginak. Alorrek bertako biztanleen etxe atarietaraino iristen direnez, hegazkinetatik jaurtitako glisofato ihintzak herritar guztiak igurzten ditu, urtean hamabost-hogei aldiz. Irudi handia, hegazkinez burututako fumigazioen kontrako manifestazio bat biltzen duena, *Insurrectas y Punto* blogean aurkitu dugu.

sastraka askok. Soluzioa haur batek asma lezake: Glisofato gehiago. 1996an 2 litro Rondup zabalduta aski zuen hektarea horrek berak garbi irauteko gaur 10 litro edo batzuetan 20 ere behar ditu.

Herri eta eskualde osoak bizi dira sistema horretan, Buenos Airesko gobernuak nekazaritza guztia agroindustriari oparitu diolako. Horietan —beti bilkura hauetan medikuek dokumentatutako zifren arabera— 12 milioi argentinar bizi dira. Laborentzako “erremedioak” zabaltzeko era ohikoa hegazkinetik fumigatzea denez, haiek bizi diren etxe, eskola, parke, iturri, baratze eta lantokien gainera datoz 300 milioi litro pozoietako asko.

Hiriburutik ikusi nahi ez dena

Biltzarretan herri fumigatuotan azken urteotan larritu diren bi arazo azpimarratu ziren. Alde batetik, ugaritu egin direla jaiotzetiko malformazioak dakartzaten umeak, haurdun dauden emakumeen nahi gabeko abortuak bezala. Bestetik, ume eta helduetan ugaritu direla bai minbiziak eta bai bestelako eritasun larriak ere.

Iazko abuztuko lehen bilkuran baziren medikuak hogeitabost urtez goiti daramatenak leku berean lanean eta haien esperientziatik ezagutu zitezkeen gaixotasun estatistiketako



aldaketak, gobernua estatistika epidemiologikoetan oso lan gutxi egiten duelako bestela ezagutuko ez liratekeenak.

Esaterako, Maria del Carmen Seveso doktoreak, Chaco departamenduko ospitale batean terapia intentsiboen ardura daukanak, azaldu zituen asko ugaritu direla aipatu arazoak—malformazioak eta kantzerak— eta baita ere arnasbideetakoak eta alergikoak, haurdun dauden emakume gazteen bestelako konplikazioak bezala. Esan behar da Chaco dela soja transgenikoa modu basatian zabaltzen den departamenduetako bat.

Chacon Osasun Ministerioaren ordezkaria den Ana Lía Otañok estadistika zehatzagoak ekarri zituen. Jaiotzetiko malformazioak,

esaterako, 1997an 10.000 jaiotzatik 19,1 baldin baziren, 2008an 85,3ra iritsi ziren. Haurren minbizia 100.000tik 8,03 izatetik 15,7ra igo da. Gaixotasunak ugaritzen dira hirietako erdiguneetatik soroen inguruetara hurbildu ahala, fumigazioaren eraginez.

Cordobako bileran garrantzia handia eman zioten haur jaioberrien malformazioei, tartean nerbio hodia- ren itxieraren akatsei. Hugo Gomez Demaio neurozirujauak datuez gain argazki beldurgarriak erakutsi zituen. Beste aditu batzuek, aldiz, erakutsi zituzten laborategietan txito eta igel enbrioak Glisofatoz arinki kutsatuta aurkitutako emaitzak, gizakietan gertatzen diren malformazioak ulertze- ko pistak eskaintzen dituztenak.

Pozioen saltzaileek beti argudiatzen dutenez zaila dela demostratzea justu gai jakin bat dela malformazio edo eritasun baten eragilea, aurkeztu dira ikerketa estatistiko zehatzak zalantzak argitzeko. Horietako batzuetan gurutzatu dira malformazioekin sortu diren haurren kopuruak, horiek ernaltu diren hilabetearekin lotzeko, eta pestizidak erabiltzen diren egutegiak. Antza, munduan egin diren gisa horretako ikerketa estatistikoek erakutsi dute landa eremuetan pestizidak eta herbizidak erabiltzen diren hilabeteetan haurdun gelditutako andreen umee- dakartzatela akats larri gehien.

Cordobako 2010eko biltzarrean elkartutako medikuek sei proposamen onartu zituzten, aurtan Rosarion berretsi dituztenak. Lehen, gizarteak jakin behar duela “plagizidak pozoiak direla, gaixoarazten gaituzten toxikoak”. Bigarren, landa eremuan bizi diren herritarren osasuna bermatzeko, botikon erabilera mugatu behar dela; ezin onartuzkoa dela urtearen sei hilabeteetan hilean hiru aldiz herri osoak lurrintzatzea.

Hiru, debekatu egin behar dela alorrek hegazkinetatik fumigatzea. Lau, airetiko keztatzeak erabat amaitu artean, behartu behar direla herrietatik kilometro batera gelditzera. Bost, aipatzen ditugun botikak debekatu egin behar direla, “benetako arma kimikoak direlako”.

Seigarren puntuan dago guztia- ren sustraia: transgenikoetan eta agroindustria erraldoian oinarritutako produkzio eredua auzitan jarri behar dela. Bizi ezinik dirauten milioika herritar horiek gogor mugitu beharko dute horretarako. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

